

SARRERA:

Oihartzun euskal musika eta konpromiso etikoa uztartzen dituen streaming plataforma berria da. Gure helburu nagusia euskal kulturaren transmisioa bermatzea eta bertako artistei bultzada ematea da, gazteen artean hemengo musikaren ezagutza sustatuz. Merkatuan dauden beste plataforma batzuek ez bezala (Spotify, adibidez), gure proiektuak uko egiten dio gatazka belikoak edo teknologia militarra finantzatzeari. Horren ordez, elkartasuna, justizia eta giza eskubideak ardatz dituen alternatiba bat eskaintzen dugu, Palestinaren aldeko elkarteekin elkarlanean arituz. Podcastak, eduki eksklusiboak eta jaialdi propioak integratuz, musika entzuteko modu kontziente eta solidario bat eraiki nahi dugu.